



Ordiziako Udala

Ordizian, **2017ko abenduaren 21ean** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:


1. 2017ko azaroaren 30eko udalbatzarrak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.
2. Azaroko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
3. Abenduko kontratuei buruz Kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea.
4. Aparteko orduei buruz Kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea.
5. EH-BILDU presoei buruzko mozioa
6. Plan Orokorraren aurrerakinaren erakustaldi publikoaren luzapena.
7. Kreditu-aldaketa, kreditu gehikuntza modalitatean, 46.558,34 €ko kopuruarekin.
8. Kreditu aldaketa, gehikuntza modalitatean, 61.506,74 €ko kopuruarekin.
9. Adingabeak aldi baterako hartzeko programa.
10. Larrialdietako ekintza humanitarioetarako laguntza.
11. % 2,75eko igoera langile publikoen soldatetan.

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIK:

1. Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planaren eranskina onartzea.
2. Orga jasotzailea erosteko kreditu aldaketa egitea.

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIK:

1. Zaharren Egoitza KABIARA pasaratzeari buruzko informazio eskaera.



Ordiziako Udala

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 21:20ean





Ordiziako Udala

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2017ko azaroaren 30eko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2017ko azaroaren 30eko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, Alkate jaunak akta aho batez onartutzat ematen du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Azaroko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Sukia andereak B17/917, B17/948 eta B17/961 zenbakidun dekretuei buruzko informazioa eskatzen du.

Alkate jaunak informazioa ematen dio.

Iturrioz jaunak Alkateak emandako informazioa sakondu du


Maiza andereak 1007 eta 1026 zenbakidun dekretuei buruzko informazioa eskatzen du.

Alkate jaunak informazioa ematen dio.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:




Ordiziako Udala

3.- Abenduko kontratuei buruz Kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea.

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Razón social	Objeto del contrato	Contrato	Vto plazo ejecución	Prórrogas	Precio del contrato	Gastado 2016
Gesmunpal	Recaudación ejecutiva	03/11/2003	03/11/2007	---	Variable	30.943,58
Juan M. Garmendia Amundarain	Conserje Casa de cultura	15/04/1986	Indefinido	Prórroga anual	Importe 2016: 2.948,84+ IVA mensual	42.817,20
Landarri S.L.	Servicio de cementerio	10/03/2005	10 años 10/03/2015	Decreto prorroga hasta nueva adjudicación Vto:12/03/2016	Precio máximo 18.000 euros + IVA	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Servicio Ayuda Domiciliaria	24/12/2010	Máximo 5 años 24/12/2015	Prórroga anual hasta nuevo contrato	Según tarifas	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Servicio público de intervención socio-educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo.	27/04/2012	Máximo 4 años. 27/04/2016	Prórroga anual hasta nuevo contrato	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido. Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	63.806,72
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	Gestión centro D'Elikatuz	24/07/2012	Máximo 4 años. 27/04/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido.	102.755,36
INDOK	Gestión Munigex	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido.	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido.	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano	Contratación provisional 10/10/2013	Indefinida hasta nueva contratación		18,07 euro hora +IVA	163.343,53
Ainara Ormaetxea Harto	Servicio de Inmigración	01/01/2016			21.773,95 euros IVA incluido.	21.966,02



Ordiziako Udala

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu batagina onartzen duena.

“23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea.”

2. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldi-aldi prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1.1 Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:


a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino



Ordiziako Udala

lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laborpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laborpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitura duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laborpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

ERREPAROA: FAKTURAK

ABENDUA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/12	3.660,98
LORRATZ ELKARTEA	349	5460,75



Ordiziako Udala

INDOK	1069	1573,91
LAIA, S.COOP.	17/38	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	014U.17	7640,25
GESMUNPAL, S.A.	2017/381	2.108,05
GESMUNPAL, S.A.	2017/11	280,38
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3484833	5.864,67
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3491516	5.755,22
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	70	141,57
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	78	141,57
LANDARRI	1700577	401,07
LANDARRI	1700576	401,07
LANDARRI	1700574	320,87
LANDARRI	1700573	320,87
LANDARRI	1700571	320,87
LANDARRI	1700637	125,01
LANDARRI	1700636	320,87
LANDARRI	1700644	80,08
LANDARRI	1700642	401,07
LANDARRI	1700641	320,87
LANDARRI	1700654	320,87
LANDARRI	1700653	320,87
LANDARRI	1700652	320,87
LANDARRI	1700651	320,87
LANDARRI	1700650	320,87
LANDARRI	1700649	320,87
LANDARRI	1700648	401,07
LANDARRI	1700647	401,07
	GUZTIRA	39.860,19

ONDORIOAK:

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.
- b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Azaldu du Kontu-hartzailearen ingera zertan datzan. Informatu du kontratu batzuk dagoeneko egunean daudela eta horregatik ez direla zerrendan agertzen. Gaineratu du, lanean jarraitzen dutela kontratu guztiak legezatzeko.



Ordiziako Udala

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Aparteko orduei buruz Kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea.

Proposamena:

AURREKARIAK:

Aplikagarria zaizkion arauak:

A) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“66. artikulua. Kontrolaren helburuak eta kontrol-moduak.”

66.1.- Lortu nahi diren helburuen arabera, kontrola honelakoa izango da:

66.1.d) Antolaketaren kontrola; eragiketa ekonomikoei doazkien antolaketa eta administrazio sistemen egokitasuna, bereziki, toki erakundearen aktiboen babesa balioztatu eta udalaren organo eta erakundeen sorkuntza eta ezabaketa, bai eta beren berregituraketak fiskalizatuz, beraien zerbitzuen kostu eta etekinen egoera, bilakaera eta aldaketa ebaluatzeko.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

B) Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketan aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.



Ordiziako Udala

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gairerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak

ZIOA:

Ordiziahitz-ek honako hau dio bere artikuluetan:

1. Artículo nº 18. Pausa entre cada jornada:

“Cualquiera que sea el régimen de organización del trabajo, entre el final de una jornada y el comienzo de la siguiente, mediarán, como mínimo, doce horas.”

2. Artículo nº 31. Apartado 4: Horas efectuadas fuera de la jornada habitual:

“Con carácter preceptivo y con anterioridad a su realización, excepto en aquellos casos de extraordinaria urgencia de fuerza mayor, La jefatura de Departamento elaborará un informe propuesta en el que deberá motivar la necesidad de la realización, la previsión de los servicios a realizar y el tiempo a emplear”

3. Artículo nº 31. Apartado 13: Horas efectuadas fuera de la jornada habitual:

“En todo caso, el número de horas que cada empleado puede realizar fuera de la jornada habitual no superará el límite de 60 horas anuales si realiza la jornada laboral normal, o la parte proporcional que le corresponda si realiza una jornada inferior”

a) Langile batzuek, 18. artikulua ez dute bete, aurretik beraien arduradunek (goi-teknikariak) horrela eskatu eta justifikatu dutelako, betebeharrak errealak baitaude. Ikusita egoera zuzendu gabe dagoela, eskatzen dut berrantolaketa bat aztertzea zuzendaritza horietan.

b) 31.4 artikuluari dagokionez, zendaritzetzan, hasiera batean ordu extrak sortzerakoan, ez zirela egiten beharrezkoak ziren txostenak. Gaur egun egoera zuzendu da, eta ordu extrak ordaintzerakoan, hilero, zuzendariek txostenak bidaltzen dituzte pertsonaleko arduradunari.

c) 31.13 artikuluari dagokionez, pertsonaleko arduradunak, kontu-hartzaileak horrela eskatuta, ondorengo taula jakinarazi du, non 60 aparteko orduak baino gehiago sartu dituztenen zerrenda agertzen den (Azarora arte) . Hilera bakoitza langile bat da.



Ordiziako Udala

APARTEKO ORDUAK																									
URTARR		OTSAIL		MARTXO		APIRILA		MAIATZ		EKAINA		UZTAILA		ABUZTU		IRAILA		URRIA		AZAROA		GUZTIRA		URTE OSOA AZAROA ARTE	
IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	IORI	JAI	NORM	JAI		
		33	21	30	18	38	16	46	58														146,0	111,0	257,0
6	12	2	4	7	11		8	4,5	27	4,5		39	25	8	12	8,5	8	23	20,50	10	17	111,5	143,5	255,0	
1	25				7,5	4	20	2,5	4	11	14	19	21		4	31	12	4,5	14		4	72,5	124,5	197,0	
	13		4		4		20		4		12	6	32		4	2	4		4			8,0	100,5	108,5	
5	13		4						4	17	4	2	25	6,5	4	2	5		10			32,5	69,0	101,5	
	9		8		4		4		8	2	4	13	13		16		5		4		4	15,0	78,5	93,5	
2	10				4		4		8		4	4	14	6,5	8	6			4		9	18,5	65,0	83,5	
	5		8		5		4		4	6		14	15	4	4	6	4				4	30,0	53,0	83,0	

Guztira, azarora arte, 8 pertsona dira gehienezko orduak (60 ordu) gainditu dituztenak. Horregatik eskatzen dut egin behar den berrantolaketa egitea, egoera hau errepika ez dadin eta Ordiziahitz bete ahal izateko.

ONDORIOAK:

Azarora arte eduki duen efektu ekonomikoa 39.775 eurokoa izan da. Kalkulu hau egiteko, bakarrik kontuan izan dira, 60 ordu gorakoak (Ordiziahitzen 31.artikulua). Ordu extra baten kostua gutxi gorabeherakoa 50€/ordua.

Berrantolatu behar dira, urtean eta langileko 60 ordu baino gehiago sartu dituzten zerbitzuak.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak ingeraren berri eman du

Kontu-hartzaileak ingeraren zergatiaz zehatzago informatu du.

Esan du ORDIZIAHITZek, langile guztientzat, gutxienezko atseden orduak arautzen dituela eta batzuetan, hori ez dela bete.

Esan du, urtean legezko gehienezko aparteko 60 orduak errespetatzeaz gain, horiek ordaintzeko, arloko arduradunaren txosten batekin justifikatuta egon behar direla.

Azarora arte ordaindutako aparteko orduen gutxi gorabeherako kostua 39.765 eurokoa izan da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak bosgarren puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

5.- EH-BILDU presoei buruzko mozioa

Proposamena

Gaur egun 312 euskal preso daude euren bizilekuetatik urrun, gehienak estatu frantsesean eta espainolean sakabanaturik.

Euskal presoek pairatzen duten urrunketak haien oinarriko eskubideak urratzen ditu. Zehazki, intimitaterako eta familia-bizitzarako eskubidea zapaltzen zaizkielako. Botere publikoek ezin dituzte inolako eskubiderik gabeko pertsonak balira bezala tratatu espetxeratuta dauden pertsonak.

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9an onartu zituen atxilotuta edo espetxeratuta dauden pertsonen segurtasunerako printzipioak, eta 20.enak honela dio: *atxilotuta edo espetxeratuta dagoen pertsonak hala eskatuko balu, bere ohiko bizilekutik arrazoizko distantzia batera dagoen kartzela batean mantenduko da.*

Bestalde, Nazio Batuen preso edo giltzapetuak tratatzeko gutxieneko arauetan, Nelson Mandela Arauak bezala ezagutzen direnak (2016ko ekainean Ordiziako Udalbatzak onartuak; 12 alde eta abstentzio 1), 59.enak honela dio: *ahal den heinean, preso edo giltzapetuak euren etxe edo birgizarteratzeko lekutik gertu dauden presondegietan egongo dira.*

Euskal presoei ezarri zaien sakabanaketa-politikaren ondorioz, hiru ordiziar ditugu euren etxetik urrun, oso urrun:

Pako Mujika Zaragozako Zuera presondegian dago, Ordiziatik 300 km-ra.

Idoia Mendizabal Valenciako Picassent presondegian dago, Ordiziatik 600 km-ra.

Rufi Arriaga Sevillako Morón de la Fronterako Sevilla II presondegian dago, Ordiziatik 960 km-ra.

Ordiziako presoak, herritik ehunka kilometrotara dauden espetxeetan urrunduta egotea legedi arruntaren zigor gehigarria da, baina senide eta lagunei ezartzen zaien mendekuzko zigorra da batik bat. Astebururo, errepideetan euren bizitza arriskuan jartzera beharturik daudelako, eta horren erakusle ankerrena dira 1982tik presondegietara bisitan zihoazela errepidean gertatutako istripuetan izan diren 16 hildakoak, edota zorionez bizitza galdu ez badute ere, larriki zaurituak suertatu direnak. Istripu gehiagorik gerta ez dadin legedi arrunta aplikatzea nahikoa litzateke.

Senideen artean gainera, egoera hau gehien pairatzen dutenak txikiak dira, 113 hurrek baitute gaur egun gurasoren bat preso, eta Ordiziako Idoia Mendizabalen semea den Ametsek aita eta ama ditu espetxean. Honela, senideek berez duten karga izugarri handitzen da, eta aita-amak kartzelan dituen haur batekin 600 km-tara bisitan joateak eragiten dituen zailtasunak eta arriskuak irudikatu beharko genituzke egoeraren benetako larritasunaz jabetzeko.

Presoak betetzen ari diren kartzela zigorrari haien senideek sufritu behar duten zigor gehigarria gehitu behar zaio beraz, eta hori guztia gutxi balitz, egoera honek senideen zigorra areagotzen du, bidaia guzti hauek burutzeko behar diren baliabideak izugarriak direlako.

Aste batean soilik, euskal presoek senide guztien artean 13,2 buelta ematen dizkiote munduari, eta horrek 110.112,03 eurotako gastua dakarkie, aste bakar batean!

Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baina baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

ESKAERA



Ordiziako Udala

Horregatik guztiagatik, Ordiziako Udaletxeari honakoa eskatzen diogu:

1.- Presoen senideek, astebururo, jasaten duten arriskuagatik Udaletxeak kezka agertzea eta dispertsioak kaltetutako guztiei bere elkartasuna agertzea.

2.- Ordiziako Udaletxeak eskatzea: euskal presoen urruntasuna eragiten duen dispertsio politikarekin bukatzea; izan ere, presoek beren etxeetatik eta senideengandik gertu egoteko daukaten eskubidea aitortu behar da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jaunak mozioa irakurtzen du.

Irakurri ostean, mozioaren testuan, eskaeraren 2. puntuan, aldaketa bat proposatu nahi duela esan du. Izan ere, hori da EAJ-PNV, PSEE-PSOE, EH-BILDU ETA PODEMOS-AHAL DUGU alderdiek adostu eta onartu duten testua Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Osoko Bilkurako guztiei mozioa banatu die adierazitako aldaketarekin eta esan du hori dela Osoko Bilkurari proposatzen dion testua eztabaidarako eta hala badagokio, bere onespenerako.

Dubreuil jaunak EH-BILDURI eskertu dio Batzar Nagusiek onartutako testuaren 2. puntua aldatzea. Adierazi du garai berrietara egokitutako espetxe-politika ezberdin bat behar dela eta kartzelan larri gaixorik dauden presoen askatasuna beharrezkoa dela.

Sukia andereak uste du espetxe-politika ez litzatekeela inoiz ezarri behar izan, orain arte ezarri egin den bezala.

Alkate jaunak esan du bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko duela eta Dubreuil jaunari eskertzen dio horren alde bozkatzea ere.

Horrenbestez, proposamena honela idatzita geratzen da:

ZIOA

Gaur egun 312 euskal preso daude euren bizilekuetatik urrun, gehienak estatu frantsesean eta espainolean sakabanaturik.


Euskal presoek pairatzen duten urrunketak haien oinarritzko eskubideak urratzen ditu. Zehazki, intimitaterako eta familia-bizitzarako eskubidea zapaltzen zaizkielako. Botere publikoek ezin dituzte inolako eskubiderik gabeko pertsonak balira bezala tratatu espetxeratuta dauden pertsonak.

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9an onartu zituen atxilotuta edo espetxeratuta dauden pertsonen segurtasunerako printzipioak, eta 20.enak honela dio: *atxilotuta edo espetxeratuta dagoen pertsonak hala eskatuko balu, bere ohiko bizilekutik arrazoizko distantzia batera dagoen kartzela batean mantenduko da.*

Bestalde, Nazio Batuen preso edo giltzapetuak tratatzeko gutxieneko arauetan, Nelson Mandela Arauak bezala ezagutzen direnak (2016ko ekainean Ordiziako Udalbatzak onartuak; 12 alde eta abstentzio 1), 59.enak honela dio: *ahal den heinean, preso edo giltzapetuak euren etxe edo birgizarteratzeko lekutik gertu dauden presondegietan egongo dira.*

Euskal presoek ezarri zaien sakabanaketa-politikaren ondorioz, hiru ordiziar ditugu euren etxetik urrun, oso urrun:

Pako Mujika Zaragozako Zuera presondegian dago, Ordiziatik 300 km-ra.



Ordiziako Udala

Idoia Mendizabal Valenciako Picassent presondegian dago, Ordiziatik 600 km-ra.

Rufi Arriaga Sevillako Morón de la Fronterako Sevilla II presondegian dago, Ordiziatik 960 km-ra.

Ordiziako presoak, herritik ehunka kilometrotara dauden espetxeetan urrunduta egotea legedi arruntaren zigor gehigarria da, baina senide eta lagunei ezartzen zaien mendekuzko zigorra da batik bat. Astebururo, errepideetan euren bizitza arriskuan jartzera beharturik daudelako, eta horren erakusle ankerrena dira 1982tik presondegietara bisitan zihoazela errepidean gertatutako istripuetan izan diren 16 hildakoak, edota zorionez bizitza galdu ez badute ere, larriki zaurituak suertatu direnak. Istripu gehiagorik gerta ez dadin legedi arrunta aplikatzea nahikoa litzateke.

Senideen artean gainera, egoera hau gehien pairatzen dutenak txikienak dira, 113 haurrek baitute gaur egun gurasoren bat preso, eta Ordiziako Idoia Mendizabalen semea den Ametsek aita eta ama ditu espetxean. Honela, senideek berez duten karga izugarri handitzen da, eta aita-amak kartzelan dituen haur batekin 600 km-tara bisitan joateak eragiten dituen zailtasunak eta arriskuak irudikatu beharko genituzke egoeraren benetako larritasunaz jabetzeko.

Presoak betetzen ari diren kartzela zigorrari haien senideek sufritu behar duten zigor gehigarria gehitu behar zaio beraz, eta hori guztia gutxi balitz, egoera honek senideen zigorra areagotzen du, bidaiia guzti hauek burutzeko behar diren baliabideak izugarriak direlako.

Aste batean soilik, euskal presoen senide guztien artean 13,2 buelta ematen dizkiote munduari, eta horrek 110.112,03 eurotako gastua dakarkie, aste bakar batean!

Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baina baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

ESKAERA

Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Ordiziako Udalari:

1.- Ordiziako Udalak kezka adieraztea astebururo presoan senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketak eragiten duen urruntasunaren biktima guztiei.


2.- Ordiziako Udalak Espetxeen Lege Orokorrak xedatutakoa bete behar dela adierazten du, askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzerakoan deserrotzerik gerta ez dadin, zigor horiek dituzten gizarteratzeko eta bergizarteratzeko printzipioen arabera, eta adierazten du ez datorrela bat urruntzeko espetxe-politikarekin, eta, zentzu berean, uste du ETaren behin betiko amaieraren ondorengo aro berrian espetxe-politika berri bat behar dela, zeinak askatasunaz gabetzeko zigorra gizartearen eta familiaren erroetatik urruti betetzea ekidingo duen, zeinak senitartekoekiko harremanak erraztuko dituen, zeinak adingabeko seme-alaben ongizatearekiko arreta erraztuko duen eta seme-alabek gurasoekin egoteko duten eskubidea defendatuko duen; eta Ordiziako Udalari eskatzen dio horren guztiaren arabera jokatzeko.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Ordiziako Udala

Ondorioz, Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat ematen du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Plan Orokorren aurrerakinaren erakustaldi publikoaren luzapen proposamena

Proposamena

ZIOA:

Plan Orokorren Aurrerakina erakustaldi publikoan dago, eta erakustaldi honen amaiera urtarrilaren 15erako aurreikusten da.

Herritarren eta eragileen parte-hartzea sustatzeko hitzaldi, tailer eta erakusketak ordea, abenduaren erdi aldera amaituko dira, eta beraz, herritarrek ez dituzte bi hilabete izango aurrerakina ezagutzen duten unetik hasita.

Gainera, orain arte izandako hitzaldi eta tailerretan hainbat herritarrek adierazi dute, erakustaldiaren epea oso motza zela, batez ere, aintzat hartuta Udala zazpi urtez aritu dela orain aurkezten den Aurrerakinaren lanketan. Herritarrei eskaintzen zain erakustaldi publikorako epea erabat desproporzionatua dela argi eta garbi ikusten da.

ESKAERA:

Horregatik guztiagatik, idatzi honen bitartez Ordiziako EH Bilduk honako mozioa aurkezten dio Ordiziako Osoko Bilkurari:

Plan Orokorren aurrerakinaren erakustaldi publikoa 2018ko urtarrilaren 15ean amaitzen da. Epe motza denez, herritarren eta eragileek parte hartzeko denbora gehiago izan dezaten, erakustaldi publikoa beste bi hilabetez luzatzea.

Eztabaida

Ezenarro jauna mozioa irakurtzen hasten da.

Azaltzen du legez ezarritako gutxieneko epea bi hilabetekoa dela, baina uste du, mozioan zehaztutako arrazoiengatik, erakustaldi publikoaren epea luzatu egin behar dela.

Esan du Plan Orokorraz informatzeko egin diren tailerrak dagoeneko bukatu direla, baina horietan parte hartu duen jendea gogoz geratu dela eta horregatik, uste du, Udaletxeak beste tailerren bat egin beharko lukeela.

Partaidetza-programan parte hartu duten pertsonen orain daukatela Plan Orokorren inguruko informazioa, eta bidezkoena litzatekeela ordutik zenbatzen hastea iradokizunak eta oharrak egiteko bi hilabeteko epea.

Proposatzen du erakusketa, tailer eta orokorrean, ekintza gehiago egitea parte hartzea sustatzeko.

Alkate jaunak esan du apirileko Osoko Bilkuran onartu zela herritarren parte-hartze programa eta jarraian, maiatzean, aho batez erabaki zela Aurrerakinaren dokumentuaren parte-hartze programa, eta ez zela ezer esan erakusketa epeen inguruan. Horretarako egin zen Plangintzako Aholku Batzordean ere, ez zen horri buruz ezer esan.

Ezenarro jaunari galdetzen dio ia posible den tarteko epe bat adostea; izan ere, bere ustez, bi hilabete gehiagoz luzatzea ez da beharrezkoa. Are gehiago, jakinarazten du aurreko astean, parte-hartze



Ordiziako Udala

prozesuaz arduratzen diren dinamizatzailerik horren inguruan galdetu zietela parte hartzaileei eta erantzuna ez zela luzatzearen aldekoa izan.

Parte-hartze ekintza gehiago egotekotan, ez daki kostea zerekin finantzatu den, ezta ekintzen edukia zein izango den ere.

Sukia andereak uste du dokumentua nahiko garrantzitsua dela, epea bi hilabete gehiagoz luzatzeko beste. Are gehiago, dokumentuaren garrantzia herritarrei ikusaraziz, parte-hartzea gehiago sustatuko luke.

Ezenarro jaunak, apirilko Osoko Bilkuran, parte-hartze prozesuaz zituen zalantzak adierazi zituen.

Esan du Udaletxeak adostu zuela, erakusketa publikoa hasi baino hilabete lehenago, aldizkari monografiko bat egin eta publikatu zela eta hori ez dela bete.

Azkenik, gogorarazi du, Plan Orokorren finantziarioa adostu zenean, parte-hartze prozesurako kopuru handiago bat eskatu zutela.

Bozketa

Aldeko botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2).

Kontrako botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioa: 0

Ondorioz, Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat ematen du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Kreditu-aldaketa, kreditu gehikuntza modalitatean, 46.558,34 €ko kopuruarekin.

Proposamena

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko lirakeen kalteak eragin nabarmena izango lukete zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, proposatzen da kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 227.07.151.00.0700 2017	Azterlan teknik.. Hirigintza	23.848,09	41.088,00	64.936,09
1 642.01.151.00.0000 2010	Plan Orokorren erredakzioa	30.000,00	5.470,34	35.470,34
	GUZTIRA	53.848,09	46.558,34	100.406,43

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000.00.0100 2017	Gastu Orok.diruzaintza gerakina	46.558,34
		FINANTZAKETA GUZTIRA	46.558,34

KODEEN AZALPENA

a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.



Ordiziako Udala

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Eguren jaunak azaltzen du kreditu aldaketaren proposamenaren kontra bozkatuko dutela, bai 7. puntu honetan, baita 8. zenbakidun hurrengo puntuan ere; izan ere, uste dute, nahiz eta kreditu aldaketa erabilgarri dagoen teknika bat den, gehiegi erabiltzen dela.

Gogora ekarri du, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean eskatu zutela Osoko Bilkurara eramango ziren kreditu aldaketak garaiz azaldu eta informatu behar zirela. Esaten du, seguruenik, aldaketa horietan agertzen diren kopuruak justifikatuta daudela, baina aurreko Osoko Bilkuran ere eskatu zutela garaiz informatzeko eta beste behin ere, proposamenak Osoko Bilkuran aurkeztu direla oposizioari alde zuzeneko informazio hori eman gabe.

Aurkeztutako aldaketa gehienetan aldeko bozka eman dutela, baina uste du nahikoa dela.

Iturrioz jaunak erantzuten dio adostu zela informatzeko bilera bat egingo zela, baina bigarren kreditu aldaketa, gai-ordenako 8. zenbakidun puntua, astelehenean bertan egin zela eta asmoa zela oposizioko alderdi guztiak bilera batera deitzea asteazkenerako, baina bilera ezin izan zela egin Kontu-hartzailearen arrazoi pertsonalengatik.

Sukia anderea ados dago Eguren jaunarekin. Aldaketen kontra bozkatuko dute, nahiz eta Iturrioz jaunaren azalpena ulertzen duen.

Uste du kreditu aldaketen bitartez, aurrekontu luzatuak zilegi ez dituen gastu batzuk onartzen ari direla eta gai horren inguruan hausnartu dutela bere taldean.

Iturrioz jaunak esan du aurrekontu luzatuekin gaudela bere garaian Ordiziako EH-BILDUK eta Ordizia.Orainek ez zutelako aurrekontua onetsi eta talde biek esan zutela kreditu aldaketen bitartez, adostutako gastuak gehitu ahal izango zirela.

Kontu-hartzaileak nabarmendu du partidetako batzuk dagoeneko adostuta daudela.

Alkate jaunak argitzen du Plan Orokorreko Batzordean izan zela.


Kontu-hartzaileak aldaketa onartzearen beharra azpimarratu du legezko 30 eguneko epean hartzekodunei ordaintzeko; izan ere, hori ez bada eginen ez dugu legea beteko eta behar den garaian finantzazioa lortzeko, arazoak eduki ditzakegu.

Eguren jaunak esan du Kontu-hartzailea ulertzen duela, baina errepikatzen du gastuaren gehikuntza nabarmena dela eta nahiz eta, seguruenik, dena justifikatuta egon, onartu behar denaren argumentuak ez duela balio. Uste du erantzukizun kontu bat dela, ezin dutela adibidez, Protokoloan ehuneko 120ko gehikuntza bat onartu informazioa eduki barik, edo informazio hori bera Osoko Bilkuraren egunean bertan jasota.

Iturrioz jaunak erantzuten dio tekniko batzuk ohituta daudela, politikoekin adostu barik, gastuak egitera eta horien artean, nabarmen du Kataluniako buruhandien konpartsarena, ia 8.000 eurokoa. Uste du gastu hori dagokion arlo edo departamenduari egotzi behar zaiola. Funtzionatzeko modua eta ohitura txarrak aldatu behar dira.

Dubreuil jaunak uste du garrantzitsua dela kontuan hartzea etorkizunerako, baina ez datorrela egindako kritikaren harira.

Kontu-hartzaileak, beste behin ere, esan du aldaketak ez onartzeak arazoak ekarriko dituela, besteak beste, Haur Eskolari egin beharreko ordainketa.



Ordiziako Udala

Bere harridura adierazten du oposizioari informazioa ez zaiola eman jakitean.

Esan du, onartzen ez badira, lan karga oso handia dela eta gaineratu du Aurrekontuen Exekuzio Arauan aurrekontuen aldaketen kontrolerako mekanismoak onartu ahal direla.

Prestutasuna agertu du behar den informazio guztia emateko, baina esan du aldaketak onartu behar direla eta bertan ez dagoela ezer arrarorik.

Dubreuill jaunak uste du oposizioak eskatzen duena informazio gehiago izatea dela.

Maiza andereak esan du, beste behin ere, eskatzen zaiela ezagutzen ez duten zerbaiten gainean aldeko botoa ematea. Ez dakite zer bozkatuko duten.

Iturrioz jaunari erantzuten dio uztailetik dakiela konpartsaren gastuari aurre egin behar zaiola. Uste du oso erraza dela astebeteko aurrerapenarekin oposizioa informatzea; izan ere, desbideratzeak alde zuzenetik ezagutzen dira eta horietako asko errepikatu egiten dira.

Bozketa

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzia: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena ez onartutzat jo du.



8.- Kreditu aldaketa, gehikuntza modalitatean, 61.506,74 €ko kopuruarekin.

Proposamena

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipaturako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 213.01.162.10.0800 2017	IBILGAILUEN MANTENUA	0,00	381,68	381,68
1 227.99.164.00.0800 2017	Kontr. zerbitzuak. Hilerria	21.937,30	2.520,35	24.457,65
1 626.01.231.00.1000 2017	Informatikako ekipamendua	0,00	2.434,80	2.434,80
1 221.02.414.00.1700 2017	Ura	0,00	20,18	20,18
1 421.01.414.00.0100 2017	Ekarp. GOIMEN ETA MATADERO TOLOSA	14.014,74	362,72	14.377,46
1 644.01.432.00.1700 2017	APP ORDIZIAKO AZOKA	16.000,00	24,95	16.024,95
1 226.02.912.00.0100 2017	Protok. eta ordezk. gast. G. Organoak	10.000,00	12.000,00	22.000,00
1 626.01.929.00.0300 2017	IMPRESORA	0,00	121,00	121,00
1 626.01.931.00.0200 2017	Informatitako tresnak	1.000,00	881,55	1.881,55
1 481.01.323.10.1800 2017	Transf.. Haurtzaindegia	426.104,00	29.896,00	456.000,00
1 642.02.151.00.0700 2017	Obrak eta proiektuak San Bartolome	380.000,00	12.863,51	392.863,51
GUZTIRA		869.056,04	61.506,74	930.562,78



Ordiziako Udala

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000.00.0100 2017	Gastu Orok.diruzaintza gerakina	61.506,74
FINANTZAKETA GUZTIRA			61.506,74

KODEEN AZALPENA

a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Eztabaida

Eguren jaunak esan du, aurreko puntuan azaldutako arrazoi berberetatik, hau da, informazio faltagatik, proposamenaren kontra bozkatuko dutela.

Bozketa

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 7 (Ordiziako EH-BILDU 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena ez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Adingabekoak aldi baterako hartzeko programa.

Proposamena

IZAKI G.K.E.ak 2017ko udan, Ordiziako familia batetara etorritako ume baten bidai gastuak ordaintzeko diru-laguntza eskaera aurkeztu du.

Ordiziako udaleko garapenerako lankidetzeta-programa arautzen duen araudia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012ko abuztuaren 21ean argitaratua, eta araudiko lehenengo kapituluaren arautzen den "*Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa*" ikusita, "Oporrak bakean" izenarekin ezagutzen dena.

2017ko abenduaren 13ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 300€ko diru-laguntza ONARTZEA proposatzen da IZAKI G.K.E.ari, garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programan parte hartzeagatik, Chernobilgo haur bat Ordiziako familia baten etxean hartuz 2017ko udan.

Eztabaida

Dubreuil jaunak proposamena zertan datzan azaldu du.



Ordiziako Udala

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-BILDU 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat ematen du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Larrialdietako ekintza humanitarioetarako laguntza.

Proposamena

